



## **TOLOSAKO UDALA**

### **TOLOSAKO UDALA ETA GIPIZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN ARTEKO**

#### **HITZARMENA**

**TOLOSAKO LEHEN HEZKUNTZAKO HIRU IKASTETXEETAN  
(Hirukide, Laskorain eta Samaniego) AHOZKOTASUNA ETA  
BERTSOLARITZA EGITASMOA LANKIDETZAZ BURUTZEKO.**

Tolosan, 2015eko irailaren 10ean.

#### **BILDURIK**

Batetik, Olatz Peon Ormazabal, N.A.N: 34.108.801 P, TOLOSAKO UDALEKO alkatea, haren izenean eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala ahalmenduta.

Eta bestetik, Felix Irazustabarrena Arsuaga, N.A.N.: 15.956.323-G, GIPIZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN izenean eta haren ordezkari gisa.

Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta HITZARMEN hau sinatzen dute, ondorengo klausulen arabera.

#### **KLAUSULAK**

##### **1.- Proiektuaren definizioa**

###### **1.1.- Helburuak:**

- Bertsolaritzak eskaintzen dituen aberastasun linguistikoak ezagutzeaz gain, erabiltzeko gaitasuna lortzea.
- Egoera komunikatiboaren arabera koherenteki jokatzeko jakitea.
- Hizkuntzaren erregistro informal ludikoez jabetzea.
- Hizkuntzak dituen baliabide estetikoak jabetzea eta hala izanik, erabiltzea.
- Memorizaziorako gaitasuna jorratzea.
- Bertsolaritzaren bidez Euskal Herriko tradizioa eta oraina uztartzeko gai izatea.
- Bertso eskolen ingurua ezagutu eta hurbiltzea.

### 1.2.- Edukiak.

Hiru eduki multzo dira, eduki multzo hauek ez dira bakarka lantzeko, lanketa egiterakoan modu global batean egiteko sorturik daude.

- Bertsogintza komunikaziorako tresna.
- Bertsoaren osagaiak eta ezaugarriak.
- Ahozko tradizioaren eta bertsolaritzaren bilakaera.

### 1.3.- Funtzionamendua.

- Bertsozale Elkarteko espezialista hamabostean behin joango da gela bakoitzera. Espezialista joaten ez den astean landu behar duenaren berri emango dio ikastetxeko irakasleari.
- Tutorea edo guneko irakaslea bertsolariarekin batera egongo da gelan, batetik, zubi lanak egiteko, eta bestetik, proiektuaren jarraipena egin dezan, iradokizunak egin ditzan eta ikasleen ebaluaketan laguntzeko. Irakasle horrek formazioa ere jasoko luke bide batez. Bukaeran ebaluaketa burutuko dute irakasleak eta bertsolariak.
- Ikasturte amaiera aldera Gipuzkoako Bertsozale Elkartek hiru jaialdi antolatuko ditu herrian, eta bertan zentro ezberdinetako ikasleen produkzioa plazaratuko da.

- Proiektuaren jarraipenari dagokionez bailara mailako batzorde bat osatuko da, proiektuan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko arduradun bana, udal bakoitzeko arduradun bana eta Bertsozale Elkarteko ordezkari bategatik osatua. Batzorde hau urtean behin bilduko da gutxienez, eta horretaz gain, beharrezkoa ikusten den guztietan deitu ahal izango du batzordeko edozein partaidek.
- Ikasturte amaieran ikastetxe bakoitzak idatzizko balorazio bat aurkeztuko du Bertsozale Elkartearen, eta hauekin, espezialisten eta Bertsozale Elkartearen balorazioekin eta gainontzeko datuekin txosten bat aurkeztuko zaio Udalari.

## 2.- Alde bakoitzaren konpromisoak

### Bertsozale Elkartek

- Proiektuaren garapenarekin jarraitzeko konpromisoa bereganatzen du, bere parte hartzea ziurtatuz.
- Materiala ekoiztu eta ikasturtetik ikasturtera osatu eta hobetzeko konpromisoa bereganatzen du.
- Bere espezialisten formazio jarraiturako mintegi eta jarduera ezberdinak bideratzeko konpromisoa bereganatzen du, eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.
- Ikastetxeek nahiz Udalak eskatzen duten guztietan bildu eta proiektuaren aplikazioaren inguruan sor daitezkeen kezka guztiei erantzuna emateko konpromisoa bereganatzen du.
- Proiektuaren definizioan eman daitezkeen aldaketa guztien berri ikastetxeei eta Udalari emateko konpromisoa bereganatzen du, beraien aplikazioa adostuz.
- Aurreko atalburuan jasotako helburu, eduki eta funtzionamenduari erantzuteko konpromisoa bereganatzen du.

### Udalak

- Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetan, lehen hezkuntzan, 2014-2015 ikasturtean eskolak eman eta ikasturte amaierako hiru bertso

jaialdiak antolatzeko 26.500 euro emango dizkio Tolosako Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari.

Diru laguntza jaso aurretik, GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAK diruz lagundutako jardueren memoria, diru-kontuen balantzea, fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzarekiko betebeharrak beteta izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Udaletxean.

- Jarraipen batzordearen bileretan parte hartzeko konpromisoa bereganatzen du, proiektuaren egoeraren informazioa jaso eta bere kezka nahiz iritziak mahai gainean jartzeko foro egokia den partetik. Horretaz aparte sor daitezkeen gai ezberdinen inguruan beharrezkoak ikusten diren bilera guztiak egin ahalko ditu, bai beste aldeetako batekin eta baita biekin ere, herri nahiz eskualde mailan.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen bi ale izenpetzen dituzte bildutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean.

Alkatea

Olatz Peon Ormazabal

Bertsozale Elkartea

Felix Irazustabarrena Arsuaga

Nire aurrean,  
idazkaria



Jose Luis Unanue Ugalde